

Jardunaldia Europako Esparruaren erronkak eta Mendeberrri Proiektuarekin dituen loturak aztertzeko

2007/04/03

Mondragon Unibertsitateak jardunaldia antolatu du Oñatiko **Enpresa Zientzien Fakultatean**, **Europako Esparrura** moldatzeko erronkak eta esparru berriaren eta **Mendeberrri Hezkuntza Proiektuaren** arteko loturak aztertzeko. Izan ere, **Mondragon Unibertsitateak** duela zazpi urte jarri zuen abian **Mendeberrri Proiektua**. Jardunaldian, halaber, zeharkako gaitasunei unibertsitate-hezkuntzan eta lan-munduan dagozkien eginkizunak eta garrantzia ere aztertu dituzte jardunaldian. Mondragon Unibertsitateak ia zazpi urte daramatza arlo hori lantzen, **Mendeberrri Proiektuaren** bidez, eta ordutik, zeharkako gaitasunak irakaskuntzan txertatu ditu. Lan-munduan oinarritzko zeharkako gaitasun batzuk behar-beharrezkoak dira: adibidez, talde-lana, erabakiak hartzeko ahalmena, komunikazioa, lidergoa edo arazoak konpontzeko gaitasuna. Eta horiek guztiak aztertu dituzte jardunaldian. Mintegia Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean izan da.



Mendeberrri proiektua

Madriko Unibertsitate Autonomiko Kanpo eta Korporazio Harremanetarako Zuzendari Luciano Galán eman dio hasiera jardunaldiari. Horrela, Europako esparruaren ezaugarriak eta erronkak aztertu ditu 'Goi Hezkuntzaren Europako Esparruaren eraikuntza eta Boloniako prozesua' hitzaldiaren bidez. Luciano Galán, gai horretako aditua, Madriko Unibertsitate Autonomiko gerentea izan zen 1986tik 2002ra bitartean. Gaur egun, **CRUEn** (Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Konferentzia) Europako Bateratze Prozesurako sortutako lan-taldeko kidea da.

Ondoren, **Unibertsitateko Errektoreordeak, Joxe Mari Aizegak**, Mendeberrri Proiektuari buruzko hitzaldia eman du. Aipatutako proiektuaren bidez, enpresa eta erakundeetan sortzen ari diren behar eta aldaketei erantzuten die Mondragon Unibertsitateak, gaur egun ezinbestekoa baita hezkuntza-kontzeptua errotik aldatzea. Eredu horrek pertsonak trebatzea du helburu, lan-munduko erronka berriei aurre egiteko moduko gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalak izan ditzaten, eta era berean, norbere prestakuntzaz arduratzeko, talde-lanean jarduteko, proiektuak bideratzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gai izan daitezten.

Hitz batean, ohiko irakaskuntza eredua, ezagutzen transmisioan eta irakaslearen nagusitasunean oinarritua, alde batera uztea eta beste eredu bati heltzea proposatzen du Mendeberrri proiektuak. Beste eredu horrek ikaslearen autonomia eta beste gaitasun batzuk sustatzen ditu. Era berean, ikasleen partaidetza, lankidetzeta eta erantzukizunak hartzeko gaitasuna bultzatzen ditu. Hau da, komunikazioa oinarri duela, eragile proaktibo bihurtzen du ikaslea.

Mendeberrri proiektuaren ondorioz, ezagutzen transmisio hutsean oinarritutako lehengo hezkuntza-ereduaren ordez, ezagutzak, gaitasunak eta balioak garatzen dituen prestakuntza nagusitu da. Hiru hizkuntza lantzen direnez, ikasketak bukatzen dituztenean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bikain lan egiteko gai izaten dira ikasleak. Gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak bete-betean aprobetxatzen dituzte. Hitz batez, hizpide izan dugun hizkuntza-ereduak zuzenean erantzuten die unibertsitateen Europako esparrura moldatzeko erronkei.

Zeharkako gaitasunak

Ondoren, zeharkako gaitasunak lan-munduan duten garrantzia eta lan-merkatuak arlo horretan dituen premiak aztertu ditu **Ulma Construccióneko giza baliabideen zuzendari Pedro Telleriak**.

Jatorria egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketetan bilatu behar da. Izan ere, aldaketetara egokitzeko eta ezagutza teorikoetatik harago beste balio eta gaitasun batzuk bereganatzeko gai diren profesionalak eskatzen ditu gero eta gehiago.

Hain zuzen ere, Europako errealitatera egokitzeko, zeharkako gaitasunak txertatu beharko dira unibertsitateko hezkuntzan. Mondragon Unibertsitateak urteak daramatza horretan, eta bere egin ditu unibertsitatean lantzen diren zazpi zeharkako gaitasunak: talde-lana, erabakiak hartzea, komunikazioa, lidergoa, ikuspegi orokorra, arazoak konpontzea eta ikasten ikastea. Zehazki, Mendeberti proiektuak zuzenean heltzen dio Europara egokitzeko erronkari, besteak beste, gizartearen benetako premiei erantzuten baitie.

Hezkuntza-proiektu horrekin, urrats bat gehiago eman du unibertsitateak, ezagupenak, gaitasunak eta balioak garatzeko apustu sendoan. Zeregin horretarako, hezkuntzaren alorreko berringeniaritza-proiektu bati heldu dio. Bertan, ikaskuntza ez da ezagupen zientifiko-tekniko hutsetan euskarritzen; aitzitik, eredu hirueledunean oinarrituz, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei garrantzi handia ematen die. Eredu horrek, azken finean, ikasleak trebetasunak eta gaitasunak bereganatzea du helburu, eta ez da ezagutza zientifiko-teknikoen transmisioan bakarrik oinarritzen.